

1. HONDAKINEN BILAKAERA 2000. URTEAN

Ihazko urtea aurrekoen antzekoa izan da. Berriz ere hondakinen kantitatea **hazi** egin da (zabortegira botatakoa + birziklatu duguna). Beste urtetan bezala gorakada %4koa izan da. Gehikuntza hau zerbait txikiagoa izan da baino argi dago 95ean hasi zen gorantzako joera mantentzen dela eta berriro ere zabor gehiago sortu dugula.

Gaikako bilketan (edukiontzi berdea + horia + urdina + beste bilketak) **berreskuratu** ditugun kantitateak asko **igo** dira. Hazkunde honen ondorioz %20ko berreskuraketa lortu dugu. Hau da, 100 kilotatik 20 ez dira zabortegira bota.

Zaborren hazkundearen arrazoi nagusia etxeetako zaborrak izan da.

Gaur egun, gutako bakoitzak **440 kilogramo** sortzen ditu urtean zehar. Edo beste modura batera esanda, kilo 1 eta 200 gr egunero. Ihaz sortu genuen zabor guztiarekin 26 igerileku olinpiko bete genitzake. Aurreko urtean baino igerileku bat gehiago.

Aipatu Europako herrialdeetako sorkuntza oso desberdina dela. Gutxiena sortzen dutenak greziarrak dira, 372 Kg/pertsonako/urteko, eta gehiena sortzen dutenak austriarrak dira, 654 Kg/pertsona/urteko. Europako batzbestea 425-450 kg/pertsona/urteko dira, beraz momentu honetan batzbeste honen barruan gaude. Gure azpitik Portugal, Espainia edo Finlandia bezalako herrialdeak daude. Gainera aldiz Irlanda, Austria, Holanda, Frantzia edo Danimarka leudeke. Gure sorkuntza Erresuma Batua, Alemania, Belgika edo Italiaren antzekoa da.

Europako Ingurugiro Agentziaren arabera, hondakinen sorkuntza ekonomia baino azkarrago ari da hazten. Europear Batasunean zaborra %10a igo zen 90 eta 95 urteen artean. Epe berdinean ekonomia %6,4 hazi zen. Agentziak dioenez ekonomia eta zaborrak zuzenki lotuta daude. Agentziaren arabera joera honek hamarkada honetan jarraituko du. Gure mankomunitatean hain zuzen ere joera hau ari da betetzen eta zabor gehien sortzen duten herrialdeen mailara ailegatzen ari gara.

Dena den gogoratu behar da zabor hauen zati garrantzitsu bat **gaikako bilketako** edukiontzietara joan dela. Aurreko adibidera bueltatuz, 26 igerilekuetatik 5 berreskuratu egin dira birziklatzeko eta beste 21ak Sasieta zabortegiran iritsi dira. Hau da, ihaz gutako bakoitzak sortu zituen 440 kilotatik 81 berreskuratu egin ziren eta beste 359-ak zabortegira bota ziren.

Birziklapen portzentaiak 99koaren antzekoak dira. Egia da 2000. urtean birziklapenerako material gehiago jaso dela baino zaborra asko igo dela ere gertatu da. Porportzioan bi hazkundeak antzekoak izan dira, beraz birziklapen maila mantendu egin da.

Aipatu erreferentzi bezala Europako beste herrialde guztietan, Alemanian izan ezik, non alderantzizkoa gertatzen ari da, zaborrak gehitu egin direla. Joera orokor honen barruan **3 talde daude:**

- Birziklapena eta konpostaia zaborrak baino gehiago hazi diren herrialdeak. Honen ondorioz zabortegira bota dena gutxitu egin da: Austria, Holanda, Suedia eta Alemania. Aipatu birziklatzeaz gain konpostatu eta erraustu (inzineratu energia aprobetxatuz) ere egiten dutela.
- Zaborraren hazkundera birziklapena eta konpostaiarekin orekatu duten herrialdeak: Danimarka eta Suitza.
- Zaborra birziklapena baino gehiago igo den herrialdeak. Ondorioz zabortegira hondakin gehiago ailegatu dira: Frantzia, Noruega eta Espainia.

Sasieta Mankomunitatea eta Euskal Herria hirugarren talde honetan daude.

Aipatu orain dela 5 urte 313 kilo sortzen genituela gaurko 440 kiloen aldean, hau da, 127 kilotako gehikuntza. Lehengo adibidea erabiliz 18 igerilekutatik 26ra igarotzea izango litzateke 5 urte hauetan. Egia esan **zaborra asko igo da**. Egia da baita ere **birziklapena bikoiztu** egin dela urte hauetan, baino hobekuntza nabarmen hori ez da nahikoa izan zaborren hazkundera orekatzeko, beraz azkenerako zabor gehiago iristen ari da zabortegira. Eta hau da benetan garrantzitsuena.

Gogoratu Sasieta birziklapen portzentaiak, %20 inguru, aurkitu daitezkeen **hoberenetakoak** direla, bai estatu mailan, baita Europa mailan ere. Gogoratu baita ere zabor dena ezin dela birziklatu. Gehienez ere %45a birziklatu daiteke, konpostaia eta errausketa energi aprobetxamenduari kanpo uzten baditugu. Bi aukera hauek oraingoz ez ditugu kontutan hartzen gure kudeaketaren barruan. Kontutan izanik datu hau, esan genezake birziklatu daitezkeen guztitik %45a berreskuratzen ari garela. Erreferentzi bezala kontutan izan herrialde aurreratuenak ere %70-a ez dutela gainditzen. Beraz, ezin dezakegu egoera txarretaz hitzegin.

Gaur egun Suediaren maila berean geundeke eta ohitura handiko herrialdeak diren Alemania eta Suitzaren atzetik.

2. GAIKAKO BILKETA

Ihazko urtean "Gaikako bilketa"-n jaso diren kantitateak **hobetu** egin dira 1999koekin konparatuz. Beira bilketa eta paper/kartoi bilketa orduko maila onetan mantendu dira. Ontzien bilketak bere gorantzako joerarekin jarraitzen du eta dagoeneko mankomunitateko maila, bere garaian esperientzi pilotoko herriek zeukaten maila berdinetara ailegatzeko ari da. Gainera aipatu, azkeneko hilabete hauetan maila hori lortu dugula eta joera onak jarraitzen duela, beraz bilketa honen arrakastaz hitzegin dezakegu.

Azkeneko 5 urte hauetan birziklatutako 31 kilogramotatik 88 kilogramotara igaro gara. Hau da, iha **hirukoiztu** egin dugu gaikako bilketako kantitateak. Gaur egun gure etxeetan sortzen denaren %20a sailkatu egiten dugu. Aipatu oso emaitza onak direla. Lehen esan bezala zabor guztia ez da birziklagarria. Hau kontutan izanik, esan daiteke birziklatu daitekeenaren iha erdia berreskuratzen ari garela.

Lehen ere aipatu dugu birziklaketa igoera, nahiz eta garrantzitsua izan den, ez dela nahikoa izan zaborraren igoera handiagoa orekatzeko, eta honen ondorioz 99an baino zabor gehiago ailegatu dela zabortegira, Euskadi osoan gertatu bezala.

Ikusi dezagun bilketa bakoitza bere aldetik.

2.1. BEIRA BILKETA

Azkeneko urtetan bezala beira izan da herritarrek **gehiena birziklatu** duten materiala. Gaur egun etxeetan sartzen dugunaren %70a birziklatzen dugu. Hau da, iha hiru laurden edukiontzi berdera joaten dira. Marka ona benetan..

Kantitate hau etxeetan biltzen dena da bakarrik. Honetaz gain beira sektorearen enpresei ere biltzen zaie, beraz, azkenerako kantitate hau hobea da.

Ihazko urtean biztanle bakoitzak 22,4 kg. bota zituen edukiontzi berdera. Kantitate hau Espainiakoa baino askoz hobea da. Orain dela 2 urte 8,2 kilo botatzen ziren eta ihazko 11,8 kilotara igotzeko asmoarekin. Aipatu Euskadiko batzbestea 1999an 15,6 kilotakoa zela.

Aipatu Europako herrialde birziklatzaileneetan herritarrek antzeko maila daukatela (Suitza, Herbereak, Austria, Suedia, etab.), egia esan iha berdinak, hau da, gure eskualdetan daukagun sentsibilizazioa **lehenengo mailakoa** da Europakin konparatuz.

Aipatu baita ere, aurtengo urtarrilean Goierrin beste 60 edukiontzi banatu direla beira bilketarako eta urte honen zehar beste hainbeste ipiniko ditugula. Helburua da gaikako bilketa dauden puntuetan beti 3 edukiontziak egotea, hau da, horia, berdea eta urdina.

2.2. PAPER ETA KARTOI BILKETA

Beiraren atzetik hurrengo bilketa paperarena da. Ihazko urtean herritar bakoitzak 31 kilo bota zituen edukiontzi urdinera. Kantitate honi puntuz puntu dendariei jasotako kartoia gehitzen badiogu guztira 43,7 Kg/bizt/urte izango ditugu. Honek esan nahi du gure eskualdean sortzen den paper eta kartoiaren %49a birziklatu dela, hau da iha erdia.

Bilketa honetan oraindik ere hobetzeko aukera badugu, Europako herrialde hoberenak %70aren inguruan bait dabilta. Dena den, aipatu **joera oso ona** dela eta orekatzeaz baino gehiago hobetzeaz hitzegin behar dugula. Ihaz adibidez edukiontzi urdineko bilketa %10ean hobetu zen.

Aipatu baita ere aurten edukiontzi hauen bilketa maiztasuna hobetu egin dugula. Helburua da edukiontziak inoiz ez egotea beteta. Zerbitzuko hobekuntza honek frogatutako zeharkako ondorio bat dakar, eta da bildutako kantitateak ere hobetu egiten direla.

2.3. ONTZIEN BILKETA

Txostenaren hasieran esan bezala ontzien bilketa da gehien hazten ari dena. Hau ulergaria da bilketa berriena bait da. Adibidez ihazko urtean edukiontzi horiaren bilketa %14 igo zen. Honek adierazten digu gehien hazi den bilketa izan dela.

Urte honetan biztanle bakoitzak 6 kg. bota ditu edukiontzi horira. Kantitate hau asko gerturatzen da bere garaian experintzia pilotoa egiten zen herrietan biltzen zen kantitateetara (Beasain, Ordizia, Lazkao eta Olaberria).

Aipatu herri hauetan 8,5 kilo ere jaso izan direla biztanleko. Ordiziko 2000ko batzbestea hau da adibidez. Benetan marka ona.

Aipatu Sasieta **Gipuzkoako buruan** dagoela ontzi bilketan. Bere ontziak "Sailkapen plantara" eramaten duten mankomunitateen batzbestea 4,3 kg/bizt/urte da, Sasietakoa aldiz 6 kg/bizt/urte da, hau da besteena baino %40 hobe.

2.4. GAIKAKO BILKETA HERRIZ HERRI

Ordiziak jarraitzen du izaten herri hoberena birziklaketari dagokionez. Ihaz, ordiziar bakoitzak 73 kilo sailkatu zituen ondoren birziklatuak izateko. Aipatu mankomunitateko batazbestea 59 kg/bizt/urte izan zela. Bai, beira, ontzi edo paper bilketan herri hau izan da emaitza hoberenak lortu dituen.

Ondoren **Beasain** dator, eta atzetik hirugarren talde batean beste herri handienak, hau da, Legazpi, Lazkao edo Urretxu.

Herri txikien artean **Itsasondo** eta Legorreta aipatu behar ditugu, oso emaitza onak lortu bait ditzute.

Ikusi atal honi dagokion taula. Gogoratu herri txikien datuak ez direla oso zehatzak, bertako jatetxeetan bildutako beira herritarreenak balira bezala kontsideratzen direlako.

3. HONDAKINEN ESTATUKO PLANAREKIN KONPARAKETA

Ihazko urtearen hasieran "Plan Nacional de Residuos" jarri zen indarrean (PNRU). Ihazko txostenean Sasieta mankomunitateko egoera aztertzen zen PNRU honekiko. Txosten hartan puntu garrantzitsuenak edo guregan eragin handiena zutenak laburtzen ziren. Ikus dezagun nola gauden gaur egun:

- Birziklaketa **helburu guztiak** betetzen ditugu, edukiontzi horikoa izan ezik. Baina ez gaude oso urrutik eta ez da arazorik izango hau lortzeko.
- **Sortutako** zaborra 441 kg/bizt/urte baino gutxiago izan beharko da 2002. urterako. Gaur egun 440 kg/bizt/urte sortzen ditugu, beraz ez da erraza izango helburu hau lortzea, joera gainera gorantzakoa bait da.
- Dena den gogoratu ihazko urtean **Euskadiko batzbestea** 504 kilotakoa izan zela. Beraz gure inguruko eskualdeak baino hobeto gaude eta gainera aipatu PNRUko helburuak estatu mailan betetzeko direla.
- Beste helburu bat **edukiontzi kopuruari** dagokio. Mila biztanle baino gehiagoko herri guztiak izan beharko dute gaikako bilketa. Sasietan herri guztiek, txikienak ere, badute gaikako bilketa.
- Bostehun biztanleko beira-edukiontzi bat egon beharko da gutxienez. Guk erraz betetzen dugu baldintza hori, 275 biztanleko bait daukagu beira-edukiontzi bat.
- Berdina eskatzen du paper eta ontzien edukiontzientzat. Sasietan ez dago inongo arazorik kasu horietan ere 275 biztanleko edukiontzi bat bait daukagu.

4. AURTENGO PROIEKTUAK

Hauek dira labur bilduz aurtengorako garatzen ari garen proiektuak. Bakoitzaren informazio zehatzagoa bialduko dugu egin ahala:

Betaurreko eta lente zaharren bilketa garatzen ari diren herrialdeetara bidaltzeko:

Gure eskualdeko optiketan jasotako betaurreko zaharrak biltzen dira beharra duten herrialdeei bidaltzeko, adibidez, Tanzania edo Ruanda. Lehendabiziko bilketa dagoeneko egin da eta aurki bidaliko dugu txostentxo bat lehenengo emaitzekin. Aipatu gure mankomunitateko optika guztiak hartu dutela parte proiektu honetan eta Gobernu Kanponko Erakunde batzuen laguntza ere izan dugula.

Sukaldean erabilitako olioaren bilketa:

Proiektu hau udaberrirako nahi dugu garatu. Egutegi bat jarraituz furgoneta batek Sasieta herri handienetan sukaldean erabilitako olio jasoko du. Ondoren olio hau gorde egingo da olio birziklatzen duen planta berri batetara bidaltzeko. Planta honen produktua biodiesel izeneko autoetako erregai bat izango da, betiko gasoilaren ordezkia.

Telefono mugikorren eta baterien bilketa:

Telekomunikazioen teknologien garatze azkarra dela eta telefono mugikor asko zahartuta gelditzen ari dira. Mankomunitateak telefono hauek jasoko ditu eta baita beraien bateriak ere ondoren birziklatuak izateko. Aipatu momentuz bilketa hau Madril bakarriz egin dela esperientzi pilotu bezala. Bilketa hau epe laburrean antolatuko dugu, beraz, aurki jasoko duzue honen berri ere.

BioSasieta:

Aurtengo izarra dela esan daiteke. Zabortegiko gasa elektrizitate bihurtuko duen planta eraikitzen ari gara eta udarako bukatuta eta frogak egiten egotea espero dugu. Bere garaian informazio zehatzagoa bidaliko dugu.